

BIZKAIA AURRERA KULTURA BONUA

15/25 euro aurreztu Social Antzokian erositako zinema eta ikuskizunen sarreretan!

Social Antzokia BIZKAIA AURRERA KULTURA BONUA programari atxikita dago. Produktu kulturalak kontsumitzeko Bizkaiko Foru Aldundiak ematen duen diru laguntza da **BAKB. 2021eko maiatzaren 24ra arte eros dezakezu** eta maiatzaren 31ra arte izango du balioa.

NON EROSI DEZAKEZU?

BBKren orotarako kutxazainetan, Bizkaian, eta Kutxabanken web orrian.

Bi BAKB mota daude:

Bizkaiko Foru Aldundiak bi motatako bonoak jarri ditu zirkulazioan eta biak ere Social Antzokian erabili ahal izango dira. Ezinbestekoa da bonuaren balioaren 40 euroak erosketa bakar batean eta estabezimendu bakar batean kontsumitzea.

A motako BAKB: 25 euroko prezioa du eta 40 euroko balioa. Gaztelaniazko edozein ikuskizun eta zinemarako

B motako BAKB: 15 euroko prezioa du eta 40 euroko balioa. Euskaraz egiten diren kultura-ikuskizunetarako sarrerak erosteko (cinema, antzerkia, dantza, musika kontzertuak...)

ZINE BONUAK ere erosi ahal izango dituzu (sarrera horiek 2021eko maiatzaren 31ra arte erabili ahal izango dira)

A motako BAKBarekin:

- Gaztelerazko filmetarako 10 sarrera jasoko dituzu bonoa erostean. Prezioa 40 euro.

B motako BAKBarekin:

- Euskarazko filmetarako 10 sarrera jasoko dituzu bonoa erostean. Prezioa 40 euro.

